

# dBALOREZKO PROPOSAMENA

Gaur egun, oso ohikoa dugu kalean ibiltzen goazen bitartean mugikorra erabiltzea, baina euria egiten duenean ezin dugu erabili pantaila bustitzen zaigulako eta gainera, aterkia eta mugikorra batera heltzerakoan izugarritzko arazoak izan ohi ditugu. Hau saihesteko, aterkiari eransten zaion mugikor euskarria sortu dugu.

Produktu honek erosotasuna eskaintzen digu. Euria egiten duenean aterkia eta mugikorra batera erabiltzeko aukera ematen du, eta hala ez zaigu mugikorra hautsiko eta era berean ez da bustiko, ez erabiltzen dabilen pertsona ez mugikorra bera.

Oso produktu baliagarria da, batez ere gazteentzat, gaur egun ez garelako eskuko mugikorrak banantzen. Kaletik goazen bitartean, asko erabiltzen dugu tresna hau, lagunekin komunikatu ahal izateko, berriak eguneratuta eramateko, jolasteko... eta euskarri honek, euria egiten duen momentu orotan erabiltzeko aukera emango digu erosotasunez. Gainera, ez dago lehenago sortua eta horrek ikusmina sortuko du.

Etxean eduki dezakegun produktu probetsuzkoa da, guztion eskuetan egon daikete eta prezioa baxua izango denez etxean bat baino gehiago edukitzeko aukera ere egongo da. Edozein aterkiri itsatsi dakiguke eta mugikor guztietarako aproposa izango da.

Gure aukeraketa aterkiari egokitu zaio. Hasiera batean pentsatu genuen, umeen kotxeetako aterki txiki horiekin egitea eroso izango zela, baina konturatu ginen, horrek, mugikorra besterik ez zuela estaliko, eta erabiltzen duen pertsonak arazoak edukiko zituela busti egingo litzakeelako. Horren ordean, sonbrila bat ere egokia izango zela iruditu zitzaigun, baina oso zaila da haren euskarri sendoa erabiltzeko erraza eta eroso egitea. Horregatik, betiko aterkietan pentsatu genuen,

erosotasunagatik eta erabilera erraza izan dezaketeelako mugikorraren euskarria jarritakoan.

Laburbilduz, garai hauetan ezinbestekoa dugun produktu bat da, mugikorra oso erabilgarria baita, eta euria egiten duenean, hau erabiltzen jarraitu dezakegulako. Denok eduki dezakegu euskarri hauteko bat etxean, edozein aterkiri erantsi eta kalean zehar eroso eta mugikorrarekin ibiltzeko aukera ematen baitigu.



Gutxi gorabehera itxura hau izango litzateke heldulekua aterkiarentzat, baina moldaketa batzuk egin beharko genituzke aterkia hobe heldu dezan.